

Prentsa-oharra

Eusko Jaurlaritzak Amaya Igartua IK4-TEKNIKER-eko ikertzailearen jarduera profesionala aitortu du^{EI}

- ▶ *Eusko Jaurlaritzak IK4-TEKNIKER zentroko ikertzailearen "Iana, dedikazioa eta ilusioa" azpimarratu du, baita euskal zentro teknologikoa "gero eta bikainagoa" bihurtzarren egindako ekarpena*
- ▶ *Atzo, Iñigo Urkullu lehendakariak eta Arantxa Tapia sailburuak Euskadiko zentro teknologikoetako eta CIC-etako 21 ikertzaile nabarmenenak hartu zituzten Lehendakaritzan*

(Eibar, 2018ko azaroaren 22a).- Amaya Igartua IK4-TEKNIKER-eko doktorea Euskadiko zentro teknologikoetako eta ikerketa kooperatiboko zentroetako (CIC) ikertzaile nabarmenetariko aitortu zuten atzo arratsaldean Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburua buru ziren ekitaldi batean.

Aintzatespen honen bitartez, Eusko Jaurlaritzak Amaya Igartuaren "Iana, dedikazioa eta ilusioa" nabarmendu nahi du, baita IK4-TEKNIKER zentroa "gero eta bikainagoa" bihurtzeko egin duen ekarpena ere, eragileen arteko "kolaborazio eraginkorra" sustatzeko eta I+G+b arloan "kalitatezko proiektuak" sortzeko.

Amaya Igartuak 1991etik lan egin du IK4-TEKNIKER-en, zentroko lehenengo doktorea izan zen eta 10 urtez [tribologia unitate](#)ko burua izan da, non osagaien marruskadura, higadura eta lubrifikazioa ikertzen dituen. Urte hauetan zehar, unitatean zortzi doktore gehiago trebatu dira eta, hala, langileen maila zientifikoa gora egin du. Tribologiak kontaktuko gainazalen kalitatea eta iraunkortasuna handitzen laguntzen du eta osagaien bateragarritasuna eta inguruarekin duten elkarreagina aztertzen du.

Arlo honetan, ikertzailea makina eta saiakuntza-prozedura tribologikoak garatzen eta eratzten laguntzeagatik nabarmendu da; haien bidez, material eta lubrifikatzaile berriak martxan jarri nahi dira higadura erlatiboa duten osagai guztien (protesiak, errodamenduak, engranajeak,

moldeak, zoruak, ehunak, junturak etab.) bizitza luzatzeko ingurune oldarkor ezberdinetan duten iraunkortasuna simulatuz (itsasoa, tenperatura altuak, huts altu altua). Egun, mota honetako ekipamendu gehienak IK4-TEKNIKER-en jarduten dute eta, beste batzuk, Audi, Fagor, Ederlan, Giozper eta Mecauto enpresa industrial famatuetan daude, besteak beste.

2017ko ekainaz geroztik, Igartuak materialen arloko hainbat ekintza koordinatzen ditu eta, gainera, material aurreratuen Europako plataformako (EUMAT) idazkari kidea da.

Hainbat proiektutan parte hartu izan du, besteak beste, 50 proiektu Europa mailan, 20 proiektu nazio eta eskualde-arloan eta, arlo industrialean beste 50 proiektu; haiei esker, industrian lortutako jakintza eta emaitzak partekatu ahal izan ditu.

Aintzatespen ekitaldi honek, Eusko Jaurlaritzak lehendabizi ospatzen duena, Lehendakaria eta sailburua buru izan ditu eta bilera pribatu horretan ikertzaileak eta bere familiak, IK4-TEKNIKER-eko zuzendari nagusia eta Teknologiako zuzendaria, Alejandro Bengoa eta Ana Aranzabe hurrenez hurren, ere izan dira.

Amaya Igartuak ekitaldi honetan IK4-TEKNIKER eta "zentro teknologikoaren ikerkuntza proiektuetan lagundu eta finantzatu duten" enpresak eta erakundeak "ordezkatzea" suposatzen duen "ohorea" azpimarratu du. "Proiektu haiei esker, IK4-TEKNIKER-en Europako tribologia laborategirik onenetarikoa finkatu ahal izan dugu", azaldu zuen.

IK4-TEKNIKER-eko ikerlaria nahiz gainerako ikertzaileak "bikaintasuna, espezializazioa eta merkatuarekiko hurbiltasuna" kontuan hartuta hautatu dituzte.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniarietan, produktu-ingeniarietan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

////////////////////////////////////